

Insensitive Semantics. A Defence of Semantic Minimalism and Speech Act Pluralism

HERMAN CAPPELEN AND ERNIE LEPORE

Oxford: Blackwell, 2005, 219+xii or.

Aurreko batean François Recanatiren *Literal Meaning* izan nuen aztergai.¹ Cappelen eta Leporeren *Insensitive Semantics* hau haren erantzun gisa har daiteke. Recanatiren kontestualismoaren aurrean literalismo edo minimalismoaren defendatzaile zintzo bakar gisa aurkezten dituzte beren buruak. Hizkuntzalaritza eta hizkuntzaren filosofia zeharo kutsatua daukan kontestualismoaren salatari handien gisa ere bai, posizio moderatuak hartu nahi dituztenak ere, maltzur nahiz ezjakin, ez baitira kontestualista mozturrotuak baizik. Cappelen eta Leporeren ustez, kontestualismoaren eta minimalismoaren artean ez dago erdibiderik. Kontestualista epelak baino nahiago dituzte benetakoak, radikalak. Eta gaur egungo hizkuntzalari eta filosofo gehienak kontestualistak dira. Salbuespen aipagarri bakarra, jakina, Cappelen eta Lepore beraiek (C&L, hemen-dik aurrera). Interesgarria da Recanatik justu kontrako ondorioa ateratzen dela, literalismoa dela nagusi. Ildo horretan, C&L kontestualistatzat jotzen dituzte Recanatik indexikalista gisa —Stanley— edo ikuspegi sinkretikodun gisa —Bach— hartzen dituenak. Auskalo. Nork zer ikusi nahi duen izan daiteke kontua. Ni ere ez naiz saiatuko liburu honetan aurki ditzakegun guztiak aletzen. Kapitulu askok helburu suntsitzaile hutsa daukate: kontestualismo moderatua eutsi ezin daitekeen jarrera dela erakusten saiatzea, edo kontestualismoa zein jarrera ‘eroa’ den salatzea. Autoreen estiloa ere polemikoa da, irakurketaren abiadura errazten duena seguru asko, baina eztabaida puntu zehatzak argitu ez eta, arazoak ebatzea baino, eztabaida bizirik mantetzea bilatzen duena akaso. Nik C&L defendatzen dituztenei erreparatuko diet hemen. Beren tesiei eta horien alde ematen dituzten argudioei.

¹ Ikus GOGOA V-1: 145-151.

Azpitituluak dioen bezala, liburuak bi jarrera, ikuspegi edo tesi bilduma nagusiren alde egiten du: minimalismo semantikoaren eta hizketa-ekintzen pluralismoaren alde, hain zuzen ere. Ikusiko dugunez, C&Lren argudioan lotuta daude biak. Defentsa premia daukana minimalismoa da, eta horretarako hizketa-ekintzen pluralismoan oinarritzen dira C&L. Azken hau, ordea, ez da arazorik gabea, ezta inondik ere. Baina, has gaitezen hasieratik.

1. C&Lren minimalismoa

Har ditzagun, berriz², honako esaldi hauek adibide gisa:

- (1) Ni prest nago (nik esana 2005eko otsailaren 18ko goizeko 11:27an, parean daukagun Agarre tabernara kafea hartzera joateaz ari garela)
- (2) Euria ari du (Donostian 2005eko otsailaren 18an nik esana)
- (3) Gosaldu dut (Joanak, kafea hartzeko gonbit bati orain erantzunez)

C&Lren arabera, esaldi hauen bidez hiztunak semantikoki adierazitako proposizioak hauek dira, hurrenez hurren:

- (1_{min}) <KEPA, PREST, 2005EKO OTSAILAREN 18KO GOIZEKO 11:27>
- (2_{min}) <EURIA, 2005EKO OTSAILAK 18>
- (3_{min}) <GOSALDU, JOANAK, INOIZ 2005EKO OTSAILAREN 18KO 11:30AK BAINO LEHEN>

Horren kontra, kontestualista batek esan dezake, hasteko, (1_{min}) ez dela proposizio bat, ez dagoelako egibaldintzarik mugatzerik 'prest', zertarako naogoen prest, mugatu gabe; kontestualistaren arabera, hori nahikoa da erabakitzeke (1_{min}) baino proposizio aberatsago bat dela hiztun batek (1) esaldia egin ez esaten duena. Oro har, erabilitako perpausaren esanahiak ez du proposizio osorik mugatzen, azpi-proposizio bat, 'forma logiko' bat, edo egibaldintzarik ez duen proposizio molde bat baizik. Maiz, desanbiguazioaren eta indexikoen balio semantikoak mugatzearen prozesu pragmatikoen ondoren ere, ez da proposizio osorik mugatzen. Hau da (1)-en kasua. (1_{min}) proposizioa ez denez, ezin izan daiteke (1)-en esaldiaz adierazitako proposizioa. (2)-ren kasua ez da oso ezberdina. Euria non egiten ari duen mugatuta ez duen proposizioa, (2_{min}), ez da proposizio osoa eta, esan, proposizio osoak esaten ditugu (perpaus eliptikoak eta perpaus ez-osoak edo azpi-perpausak erabilia ere). 'Ez-osotasunaren' argudioa esan diezaiokegu honi.

C&Lk argudio horren lehen premisa ukatzen dute: (1_{min}) eta (2_{min}) proposizioak dira, egibaldintzak dituzte.³ (1_{min}) egiazkoa da baldin eta bakarrik bal-

² *Ibid.*

³ Onartzen dute hala ere indexikoen erreferentzia finkatu aurretik, edo desanbiguazioaren aurretik edo termino zehaztugabeen balioa zehaztu artean ez dagoela proposizio osorik. Horregatik

din (*bba*) ni 2005eko otsailaren 18ko goizeko 11:27an prest baldin banengo; faltsua egun horretako ordu horretan prest ez baldin banengo. (2_{min}) egiazkoa da *bba* euria egin bazuen 2005eko otsailaren 18an; faltsua egun horretan euririk egin ez bazuen. Baina horrek zer esan nahi du?, galde lezake kontestualistak. Zer esan nahi du prest dagoela egiazkoa izateak? Zer egun jakin batean euria egitea egiazko izateak? Zerbaiteko, edozer dela ere, Kepa prest egonda, (1_{min}) egiazkoa dela? (2_{min}) egiazkoa dela egun horretan inon euria egiten badu?⁴ C&L prest daude galdera horiei baietz erantzuteko. Izan ere, beren jarreraren ondoko ondorio hauek baieztatzen dituzte:

- (1)-ek semantikoki adierazitako proposizioa (1_{min}) egiazkoa da *bba* Kepa prest baldin badago 2005eko otsailaren 18ko goizeko 11:30ean
- (2)-k semantikoki adierazitako proposizioa (2_{min}) egiazkoa da *bba* euria ari badu 2005eko otsailaren 18an

Kontestualistak beste urrats bat egingo du, orduan, bere argudioan. Eman dezagun baietz, (1_{min}) eta (2_{min}) proposizio osoak direla, egibaldintzarik bada-kautela. Tira, garbi dago, nolana ere, (1_{min}) eta (2_{min}) ez direla hiztunak (1) eta (2) esaldiak eginez esan dituen proposizioak. Edo har dezagun (3). Hor ez da dudarik (3_{min}) proposizio osoa dela. Baina inork ez luke esango bere bizitzan inoiz 2005eko otsailaren 18ko goizeko 11:30ak baino lehen gosaldue- la dela Joanak (3)-ren bidez esana! Edo bai. C&Lk diote hori. Beraz, C&Lren minimalismoa oker dago. Esan diezaiozun honi tribialitatearen argudioa. Kontestualismoaren arabera, minimalismoak gehienetan predikzio okerra egi- ten du hiztunak esaldiaz esaten duen proposizioari buruz. Batzuetan, muga- tzen duen edukia proposizioa izatera ere iristen ez delako (ez-osotasunaren ar- gudioa); besteetan proposizio tribial bat, inondik inora hiztunak esana edo komunikatutakoa dela pentsa ez daitekeena (tribialtasunaren argudioa). Eta horretan zentratu ohi da kontestualismoaren eta literalismo edo minimalis- moaren arteko eztabaida. Recanatik *Literal Meaning*-en dioenez, kontestualis- moa, minimalismoa eta bien arteko jarrerak erabilitako perpausaren esanahi- tik esaldiaz esandakora dagoen tartearen tamainari buruzko iritziek bereizten dituzte. Minimalisten ustez, tartea txikia da, testuinguruaren zeregina ere txi- kia, minimoa. Kontestualismoaren arabera, tartea eta testuinguruaren zeregi- na handia, maximoa da. Bi muturren artean, jakina, gainerako jarrerak.

Baina kontuz. C&Lk ez dute beren minimalismoa termino horietan defi- nitzen. C&Lren arabera, jarrerak testuinguruaren eraginpeko (*context-sensitive*)

esan daiteke C&Lren minimalismoa, beren iritzia gorabehera, ez dela izan zitekeen bezain 'mini- moa' eta, bestalde 'semantikoa' adjektiboa arbitrario samarra dela beren kasuan. Ikus Korta & Perry, «Varieties of minimalist semantics», *Philosophy and Phenomenological Research*, eta «Radical minimalism, moderate contextualism», in Gerhard Preyer and Georg Peter (arg.), *Content and Context. Essays on Semantics and Pragmatics*. Oxford: Oxford University Press (biak argitaratzeaz).

⁴ Utz ditzagun alde batera egunaren mugek eremu geografikoarekin duten erlazioak eragiten dituen konplikazioak.

diren multzoari aitortzen zaion tamainaren arabera bereizten dira. Adierazpen indexikoak soilik onartzen dituzte C&Lk multzo horretan. Kontestualistarik radikalenean, berriz, hitz guztiak —edo perpaus guztiak bederen— sartuko lituzke. Baina, hori alde batera, orain artekoa erne irakurri duenak akaso atzemango zuenez, C&Lk ez dute sekula esaten (1_{min}), (2_{min}) eta (3_{min}), hurrenez hurren, (1), (2) eta (3)-ren hiztunak esandako proposizioak direnik. Zer dira, orduan? Liburuaren lehen zati osoan behin eta berriz esaten dutenez, (1)-ek, (2)-k eta (3)-k *semantikoki adierazitako proposizioak* dira. Baina proposizio horiek hiztunak esandakoa dira, bai ala ez? C&Lren erantzuna: bai eta ez. Ez, esaldi bakoitzean ezin baita proposizio bakar bat, ezta semantikoki adierazitako proposizioa ere, esaldiaren bidez hiztunak *esan duen proposizioa* tituluaz bereizi. Bai, semantikoki adierazitako proposizioa ere, beste askorekin batera, hiztunak esana baita.

2. Hizketa-ekintzen pluralismoa

Nire uste apalean, beren minimalismoaren bertsio zailari babesa emateko C&Lk hartzen duten bideak, hizketa-ekintzen pluralismoak, onura baino kaltea ekartzen dio beren jarrerari. Uste horren zergatia azalduko dut orain. C&Lren hizketa-ekintzen pluralismoa honela labur daiteke: hiztun batek esaldi baten bidez *esaten* dituen proposizio kopurua handia da mugagabe. Hor gutxienez hiru baieztapen bereiz ditzakegu:

- a) Hiztun batek esaldi baten bidez *adierazten* dituen proposizioak ugari dira
- b) Hiztun batek esaldi baten bidez *adierazten* dituen proposizio ugari horiek hiztunak *esan* egiten ditu
- c) Hiztun batek esaldi baten bidez *esaten* dituen proposizioak mugagabe dira ugari

C&L ez lirateke a)-ri eusten lehenak izango. Perryk, esaterako, esaldi baten edukien pluralismoaren alde egiten du bere erreferentzialismo kritikoa.⁵ Eta, inplizituki bada ere, kontestualismo-minimalismo eztabaida honetan parte hartu duten batzuek ere onartua dute eduki bat baino gehiagoren existentzia. Hau, beraz, ez litzateke oso eztabaidagarria bere horretan. Kontua da, C&Lren ustez, eduki horiek denak *esan egiten* direla. Gure adibideetara bueltatuz, C&Lren arabera (2_{min}) da (2)-k semantikoki adierazitako proposizioa; eta semantikoki adierazitako proposizioa hiztunak (2)-ren bidez esaten dituen proposizioetako bat da. Kontestualisten arabera (2)-ren bidez esandakoa beste hau litzateke:

(2_{kon}) <EURIA, 2005EKO OTSAILAREN 18, DONOSTIAN>

C&L-ren arabera, ordea (2_{kon}) ere hiztunak esandakoa litzateke. Eta ez hori bakarrik. Beste hau ere, esanahiarekin eta gipuzkoarron administrazioa-

⁵ Perry, John (2001), *Reference and reflexivity*. Stanford: CSLI. (Argitaletxe bera 2006an argitaratzekoa da gaztelaniazko itzulpena *Referencialismo crítico* titulupean).

ren egungo egoerarekin zerikusia duten arrazoiengatik, aurreko proposizioaren egibaldintza faktual berdinak dituela argudia daitekeen beste proposizio hau, hiztun horrek esandakotzat jo genezake:

(2') <UR TANTAK GOITIK BEHERA ETORRI, 2005EKO OTSAILAREN 19AREN BEZPERAN, GIPUZKOAKO HIRIBURUAN>

Baina areago, ordezkapenak egin ahal izateko beharrezkoak diruditen identitate baieztapenak faltsuak izan arren eta, are gehiago, inork egiazkoak direla uste izan gabe ere, C&Lren arabera, hurrengo ere (2)-ren hiztunak esana da:

(2'') < AINGERUTXOEK PIXA EGIN, 2005EKO OTSAILAREN 18ARI DAGOKION SANTUAREN EDO SANTUEN EGUNEAN, BILBOTIK METROZ EKIALDERANTZ ORDU BETERA DAGOEN HIRI TXOLINEAN>

Eta gauza bera (2)-ren edozein inplikatura gogor nahiz ahuli buruz, (2)-ren esandakotzat har daiteke. Esate baterako,

(2''') <EURITAKOA HARTZEKO MODUKO EGUNA DA, 2005EKO OTSAILAREN 18KO HAU, EGIA AUZOAN>

...

Begien bistakoa da, beraz, hizketa-ekintzen pluralismoa baino gehiago, erabateko erlatibismoaz hitz egiteak zuzenagoa dirudi. Agerikoa da orain, C&L, semantikoki adierazitako proposizioaren defentsa egiteko, zer ordaintzeko prest dauden: Griceren bereizketa, esaldi baten esandakoaren eta inplikaturen artekoa, bertan behera uztea, zeharo baliogabetzea. Zaila da esaten zer egiten den onartezinagoa: beren minimalismo semantikoa edo erlatibismo pragmatiko mugagabea. Bide zuzena minimalismo semantiko zorrotzago batean eta pluralismo pragmatiko mugatuago batean dagoela uste dut. Gainera, minimalismoa eta kontestualismoa ez daude derrigor kontrajarriak, baikoitza bere eremuan kokatzen bada, semantikan lehena, pragmatikan bigarrena. Baina hori beste noizbait, beste nonbait azaltzeko kontua izango da.

C&Lren liburu honen helburua probokatzea izan daiteke, beste ezer baino gehiago. Atentzioa ematea ondo lortu du behintzat. Gehiegitxo igual,⁶ konparazioan. Arazo hauen inguruan argi pixka bat egitea, liburuak lortu ez duena, alegia, lortuko ahal du jarraitu dion eztabaidak!

Kepa Korta
ILCLI

⁶ *Philosophy and Phenomenological Research* eta *Mind and Language* aldizkari ospetsuak liburuari *symposium* berezi bana eskaintzekoak dira eta liburu bat ere argitaratzekotan da Oxford University Press eragindako erantzun batzuekin: Gerhard Preyer and Georg Peter (arg.), *Content and Context. Essays on Semantics and Pragmatics*. Oxford: Oxford University Press.